

GuztiONA Indarberritzen

PONENTZIA
FEDERAZIOKO IDAZKARITZAK ONARTUA



gizalan

IV. KONGRESUA

2017·12·14

GASTEIZ

IV. KONGRESUA

2017-12-14

GASTEIZ

SARRERA	5
I. ZERBITZU PUBLIKOEN EGOERA	8
II. ANTOLAKUNTZA.....	11
III.HURBILEKO EKINTZA SINDIKALA HURBILEKO ANTOLAKUNTZA SORTZEKO.....	14
IV. SEKTORE EZBERDINETAKOEGOERA ETA ERRONKA NAGUSIENAK.....	17
A) HEZKUNTZA	17
B) OSASUNA.....	20
C) UDAL- ETA FORU-ADMINISTRAZIOA	23
D) PRIBATIZATUTAKO EREMUAK: SEKTORE SOZIOSANITARIOA ETA BIDAIARIEN GARRAIOA	25
E) EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIO AUTONOMOETA JUSTIZIA SAILA, NAFARROAKO GOBERNUKO ADMINISTRAZIO NUKLEOA ETA SOZIETATE PUBLIKOAK	27
F) ESTATUKO ADMINISTRAZIOA.....	30
G) ERTZAINZTA ETA FORU POLIZIA	32
V. ALIANTZAK.....	34

IV. KONGRESUA

2017·12·14

GASTEIZ

PONENTZIA

A solid grey square graphic located to the left of the title.

SARRERA

1. Ponentzia honen helburua Gizalan Zerbitzu Publikoen Federazioan hurrengo lau urteetarako ezarri nahi ditugun ildo nagusiak eztabaidatu eta adostea da. Federazio osoarentzat izan nahi du orientagarri, bai zuzendaritzarentzat baita ordezkari, militante eta afiliatu ororentzat ere.
2. Ponentzia honetan azaltzen ez diren arren, berriki burutu den Kongresu Konfederalean hausnartu eta onartu diren hainbat berritasun eta lan-ildo nagusi, ezinbestean, Federazioak ere bere egiten ditu. Hala nola aldaketa klimatikoari aurre egin eta gizarte-eredu justu eta jasangarrirantz eman beharrezko eraldaketa, produkzio, erreprodukzio eta kontsumo ereduetan eta eredu alternatiboen beharra; baita genero berdintasunerako eman beharrezko barne eta kanpo aldaketak ere; eta lan planifikatuaren beharra gure aurrean ditugun erronkei modu egokian heldu ahal izateko. Hauek guztiak, gainera, eragin zuzena dute Federazioan eta jendartearen eta sindikatuaren beharrezko eraldaketarako ardura zuzena eskatzen digu. Hala ere, ponentzia konfederalean behar bezala garatuak daudela uste dugun heinean ez ditugu ponentzia honetan errepikatuko.
3. ELA-Gizalanek gertuko, doako eta kalitatezko zerbitzu publikoak aldarrikatzen ditu pertsona guztiontzat justizia eta berdintasunean. Eta uste dugu horrelako zerbitzuak bermatzeko ezinbestekoak direla erabateko bermedun lan-baldintza duinak. Hau da ponentzia honetako hausnarketaren oinarri nagusia da.
4. Hala ere, Federazioaren kongresu hau, aurrekoaren moduan, zerbitzu publikoek inoiz ezagutu duten erasorik bortitzenaren testuinguruan burutzen dugu. 2011tik oso urte gogorak izan ditugu lan-baldintzen defentsan eta zerbitzu publikoen beraien defentsan.
5. Botere ekonomiko-finantzarioek, gobernuen laguntzarekin, krisia aitzakia moduan erabili dute Zerbitzu Publikoen eta bertan dihardugun langileon aurka jotzeko, gurean inoiz ikusi ez bezala. Zerbitzu publikoetan murrizketa gogorak ezartzea, zerbitzuen kalitatea okertzen uztea eta langile publikoen aurkako erasoak eta kriminalizazioa Zerbitzu Publikoak eraitsi eta pribatizazioari bide irekitzeko estrategia beraren alde ezberdinak besterik ez dira.
6. Madrilek ezarritako muga eta murrizketa politikak alde batetik edota bertako gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, aldundiek nahiz udal-administrazioek, ezarritakoek bestetik; hamarkada luzetako borroka gogorren ondoren eraikitako oinarriko zerbitzu publikoak eta lan-baldintzak txikitzen ari dira. Sarritan, Euskal Herriko gobernu eta administrazioak, espainiar gobernuak harturiko murrizketa neurrietaz baliatu dira bere ardurapeko eremuetan ere murrizketa gogorak ezartzeko, ardura Madrili eragotziz edota beraiek erabakiekin ados ez zeudenaren itxura egiteko probestuz.
7. Oso larria iruditzen zaigu espainiar gobernuak jendartearen oinarriko beharrak asetzea helburu duten funtsezko zerbitzuak txikitzeko neurriak ezartzen dituenean, bertako gobernuak benetako konfrontaziorako inolako borondaterik ez izatea. Edo espainiar gobernuaren aginduak betetzea euskal jendartearen eta bertako oinarriko zerbitzuak

IV. KONGRESUA

2017-12-14

GASTEIZ

babestearen ginetik jartzea. Jarrera hau soilik uler daiteke gure agintariak zerbitzu publikoen edo euskal jendartearen ongizatearen ginetik bestelako interesak jartzen dituztelako edota oinarrian bat datozelako espainiar gobernua ezartzen ari den murrizketa politikarekin.

8. Gure autogobernua hankaz gora jartzen duten erabaki hauen aurrean, modu berean larria iruditzen zaigu euskal administrazioak, modu berezian Eusko Jaurilaritza eta Nafarroako Gobernua, izaten ari diren jarrera. Eraso hauek publikoki aho txikiz salatu izan dituzte baina gure eskuduntzak ezerezean uzten dituzten neurriak bere horretan bete dituzte, gehienez ere inolako ibilbiderik ez duten helegiteak jarriz auzitegi konstituzionalean. Honek ere agerian uzten du gure agintariak autogobernu eta burujabetzari ematen dioten garrantzia eskasa edota autogobernu hau bestelako klase interesen baitan alde batera uzteko duten prestasuna.

9. Geroz eta gogorragoa izaten ari den eraso eta Zerbitzu Publikoak desegiteko plan honi ahalik eta hobekien erantzun asmoz gure antolakuntza eta ekintza sindikala etengabe egokitzeko ahalegin berezia egin dugu azken urteetan eta bide horretan sakontzen jarraitu behar dugu.

10. Azken urteetan mobilizazioak indartu eta ugartu ditugu. Eta mobilizazio horien ondorioz ezarritako murrizketa batzuei buelta ematea ere lortu dugu. Bereziki garrantzitsua eta azpimarratzeko iruditzen zaigu 35 orduko asteko jarduna berreskuratu izana. Datozen lau urteetan ere ezinbestekoa izango dugu posible dugun sektore, enpresa eta lan-zentro guztietan mobilizazioak indartzea.

11. Kongresu arteko epe honetan, gure federazioko sektore ezberdinetan pairatzen ari garen prekarietatearen inguruko lanketa berezia egin dugu. Eginiko diagnostikoaren baitan, prekariedade egoera hauei buelta emateko neurriak gure aldarrikapenen muinean kokatu ditugu, baita eduki hauen inguruko mobilizazioa sustatu ere. Azken 6 urteetan gure federazioko hainbat sektore eta lan-zentrotan lanuzte, greba eta mobilizazio garrantzitsuak burutu ditugu

12. Zerbitzu Publikoen eta bertako langileen prekariedade arazo bihurtu dugu, hein batean bederen, administrazioentzat. Inoiz ezagutu ez ditugun EPE proposamenak mahai gainean jartzeraino. Zerbitzu Publikoetan geroz eta gehiago zabaltzen ari den azpikontratazio eta prekariedadeari aurre egitea izango da hurrengo urteetako erronkarik nagusienetakoa.

13. Pribatizaturiko Zerbitzu Publikoetan borroka gogor eta eredugarriak eraman ditugu aurrera, Gipuzkoako 3. adineko erresidentziak edota Bizkaikoak kasu. Gipuzkoako erresidentzien kasuan, lan-baldintza duineko eta Zapatero eta Rajoyren lan-erreformetatik kanpo dagoen eremu bihurtu dugu, lan-baldintza guztiz prekarioak izanez emakumeentzat pentsaturiko lan-postu eta sektorea. Bizkaiko erresidentziak ere lan-erreformatik kanpo kokatzea lortu genuen arren borroka bizia dugu oraindik ere lan-baldintza duinak lortzeko. Aurrerantzean ere, emakumeentzat pentsaturiko eta emakumeek osaturiko sektore hauean, borroka gogor eta luzeak izango ditugu emakumeen duintasuna, berdintasuna eta lan-baldintza onak defendatu nahi baditugu.

14. Heteropatriarkatuan oinarritzen den kapitalismo honi mugak jarri eta gutxieneko demokrazia eta justizia soziala bermatzeko, jendarte osoaren oinarritzko beharrak gutxieneko berdintasunean bermatzeko, alegia, Zerbitzu Publikoak eta bertan dihardugun langileak ezinbestekoak gara. Klase sindikatuak ezinbestekoak gara eremu publikoan, interes korporatibo soilak gaitzetzeko eta zerbitzu publikoen klase izaera mantentzeko.

15. Ildo horretan, murrizketa eta eraso oso gogorrak sufritu ditugun arren oso osasuntsu eta bizirik gaude. Aipatu moduan, mobilizazio indartzen aritzearekin batera afiliazioan ere nabarmen hobetu dugu kongresu arteko epe honetan (2013ko uztailean baino 2.275 afiliatu gehiago ditugu) eta ordezkaritza ere zabaldu egin dugu (%36,94arekin 2013ko uztailean baino 48 ordezkari gehiago ditugu -+0,69 puntu-), epealdi honetan ordezkaritza txikiagoko hainbat eremu Federazioan barneratu ditugun arren .



ZERBITZU PUBLIKOEN EGOERA

16. Zerbitzu Publikoetan ere, krisia aitzakia, “schock doktrina” gogor aplikatu digute. Botere ekonomiko-finantzarioen mesedetan botere politikoeak murrizketa oso gogorak inposatu eta negoziazio kolektiboa suntsitu digute. Egun, ez dugu negoziazio kolektibo errealik. Burutzeko gai garen mobilizazioen indar eta iraupenaren arabera lorpen partzialak edota administrazioak hainbat hobekuntza aldebakarrez egitera behartzen ditugu, baina orain arte negoziatu izan ditugun hitzarmenen egitura eta edukirik gabe.

17. Eginiko eraso eta ezarritako murrizketa guztiek oso egoera gogorra utzi digute Zerbitzu Publikoetan:

- a) 23.000 lanpostutik gorako enplegu suntsiketa eman da 2010 urteaz geroztik (Eustatek emaniko datuak eta Nafarroan suntsituriko enplegua kontuan izanik). Gainera, Euskal Sektore Publikoko lehen Enplegu-Erregulaziorako Espedientea gauzatu da EITBn, 30 lanpostu deseginez Administrazio Kontseiluaren babesarekin.
- b) 2012ko uztailetik aurrera jardunaldiaren handitzea, egun librean murriztea (moskoso eta kanosoak) eta abenduko aparteko ordainsariaren murrizketa pairatu behar izan dugu. Espainiako gobernuak euskal administrazioei eskuduntzak kendu eta erabaki ahalmena espainiar estatuarengan zentralizatzeko ezarritako neurriak izan arren bertako gobernuak espainiar gobernuaren erasoari ez die aurre egin, neurri guztiei men diete, eta euskal herriko langileei ezarri izan dizkiete. Hala ere, 35 orduko jardunaldia eta egun libreak kasu gehienetan lehenagoratzera lortu dugu.
- c) Euskal administrazio publikoan bataz-besteko behin-behinekotasuna %35 ingurukoa da jada. Esparru batzuetan %40tik gorakoa izatera iritsi da. Egoera honek, murrizketa garaian isileko kaleratzeak egiteko parada ezin hobea eman dio administrazioari. Gainera, sektore batzuetako behin-behinekotasun izugarriak eta bataz-besteko adin altuak kontuan izanik, sektore horien privatizaziorako ibilbidea prestatzen ari dira.
 - Osakidetzan %44 behin-behinekotasuna dugu (15.500 behin-behineko enplegu). Osasunbidean %39koa (3.883 behin-behineko).
 - Hezkuntza Publikoan, kasu guztietan %33tik gora.
 - Irakasleak: %38 EAEn (9.795 behin-behineko), %33 Nafarroan (2.380 behin-behineko).
 - Heziketa Berezia: %58 (630 behin-behineko).
 - Sukalde eta Garbiketa: %64 (512 behin-behineko).
 - Haurreskolak %41 (506 behin-behineko).
 - %50aren gainetik unibertsitatean.

- Administrazio autonomoan EAEn %35 (2.500 behin-behineko). %20 inguru Nafarroako Gobernu Nukleon (900 behin-behinekotik gora).
 - Justizian EAEn %30 (500 behin-behinekotik gora). %42 Nafarroan (235 behin-behineko).
 - Udal eta Foru Administrazioan %36 (10.000 behin-behineko inguru).
- d) Behin-behinekotasun izugarri honekin batera, Euskal Herriko gobernu ezberdinek administrazio paralelo bat sortu dute azpikontratazioaren bidez. Honela, 55.000 langilek administrazioarentzat egiten dute lan azpikontraturiko enpresen bidez. Zerbitzu Publiko batzuetan, azpikontraturiko langileak, administrazioak zuzenean kontraturikoak adina edo gehiago ere badira.
- e) Eros-ahalmenaren galera areagotu egin da. 2010ean ezarritako %5eko soldata murrizketari, soldata igoerarik gabeko edo KPlaren oso azpiko igoerak metatu zaizkio. Ondorioz, 2010tik hona sektore gehienetan %15etik gorako eroste ahalmen galera izan dugu. Hau gutxi balitz, azpimarratu behar dugu Eusko Jaurlaritza dela, oraindik ere, 2012ko abenduko ordainsaria bere osotasunean itzuli ez duen Hego Euskal Herriko eta estatuko administrazio bakarra.
- f) Honi guztiari gehitzen zaizkio, besteak beste: ordezkapenik ez egitea edo astebetara egitea, bajak zigortzea, Eusko Jaurlaritzaren ardurapeko BGAEtara (Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundeetara) ekarpenik ez egitea, lan-kargak handitzea, ratioak handitzea, erretiro-laguntzak kentzea...

18. Pribatizaturiko sektoreetan lan-erreformak patronalei eman dien boterearen ondorioak eta erreformaren beraren aplikazioa pairatzen ari gara. Patronalek negoziazio kolektiboa blokeaturik daukate legeak eman dizkien tresnez baliatuz. Orokorrean oso borroka gogor eta luzeen ondorioz soilik egin ahal izan diogu aurre lan-erreformari eta horrela bakarrik lortu ditugu lan-hobekuntzak. Oro har, lan-baldintza prekarioak izanez emakumeentzat pentsaturiko lan-postu eta sektoreetaz ari gara.

19. Administrazioak pribatizazioekin aurrera jarraitzen du. 2010ko EAeko Mahai Orokorreko akordioari muzin eginez administrazioak zerbitzu berriak azpikontratzen eta pribatizatzen jarraitzen du. Horren adibide argia da Urdulizko Ospitalean garbiketa eta mantenu zerbitzuekin egin nahi izan dutena.

20. 2012an Nafarroako Gobernuak ospitale publikoetako sukalde zerbitzua pribatizatu zuen, jakinak diren ondorio larriekin bai zerbitzuan bai lan-baldintzetan baita kostu ekonomikoan ere. Salaketa eta borroka indartsuen ondorioz gobernu berriak zerbitzua publikatzeko konpromisoa hartu zuen. Orain, ordea, sukalde zerbitzuaren zati bat soilik lehenertzeko asmoa agertu du eta azkenik zerbitzu osoa publikatu behar izan du azpikontraturik mantendu nahi izan duen zerbitzuaren lehiaketara enpresarik aurkeztu ez zelako. ELArentzat larria da gobernuak bere konpromisoa bete ez izana eta prozesu honetan guztian langile guztien eskubideak behar bezala kontuan hartu eta errespetatu ez izana.

21. Egun publikoa den turismo zerbitzua ere pribatizatzeke bideak aztertzen ari da Nafarroako Gobernuak. Pribatizazio saiakera eta egoera hauen eta antzekoen aurrean oso garrantzitsua da Federaziotik egin behar dugun salaketa eta borroka zerbitzu edo sektore ezberdinak pribatizatu ez ditzaten.

22. Aurrez administrazioak pribatizatu dituen sektore eta eremuetan urte luzeetan egin dugun lan eta borrokaren ondorioz subrogazioa eta homologazioa lortu ditugun heinean,

IV. KONGRESUA

2017-12-14

GASTEIZ

administrazioak langileen lanpostuak edota lan-baldintzak bermatzen ez dituzten zerbitzuen errebertsio edo publikazioarekin egiten dugu mehatxu. Izan ere, langileen subrogazioa eta lan-baldintzen homologazioa ematen den heinean zerbitzuarekin dirurik ez baitute aurrezten edo zerbitzua zuzenean administrazioak kudeatuko balu baino garestiago gertatzen baitaie. Honekin batera, hainbat kasutan, borrokan aritu diren langileak eta sindikatua ere zigortu nahi izaten dituzte arduradun politikoek horrelako neurriekin. Federaziotik, pribatizaturiko zerbitzuen leheneratze edo publikazioa defendatzearekin batera, buru-belarri defendatu behar ditugu lorturiko egonkortasuna eta lan-baldintzak honelako edozein prozesutan.

23. Legealdi honetan EAerako Enplegu Publiko Lege berri bat onartzeko saiakera egingo du Eusko Jaurlaritzak. Azken legealdietan EAJ eta PSE-EE estutuko langile publikoen estatua oinarritzat harturik funtzio publikoaren oinarritzko beharrei aurre egiten ez dien, sindikatuen parte-hartzea eta negoziazio kolektiboa bermatzen ez duen eta langile publikoen independentzia bera ere arriskuan jartzen duen lege proposamena aurrera ateratzen saiatu dira. Horren aurrean, ELAk bestelako administrazio baten alde egingo du: demokratikoa, negoziazio kolektiborako eskubideduna, euskalduna, prekariedade eta pribatizazioei muga jarriko diena, gizartearen eta langileen partaidetzan oinarritua...

24. Eraso eta murrizketa testuinguru honetan, lorpen edo hobekuntza partzial batzuk izan ditugu:

25. EAEko enpresa publikoetan eta Itunpeko Irakaskuntzan %5eko murrizketak atzera bota ditugu eta, esaterako, EAEko itunpeko irakaskuntza da %5eko murrizketarik gabeko irakaskuntzako esparru bakarra estatu osoan.

26. Hainbat administrazioetan, foru eta udal administrazioan bereziki, eros-ahalmena berreskuratzea lortu dugu, jardunaldia berreskuratzea ere bai eta bertako BGAEtara (Elkarkidetzara) ekarpena egitea lortu ere bai.

27. Lanbiden ere, enplegu orientatzaileak kaleratze arriskuan zeuden eta beraien lanpostua bermatuko dien akordioa lortu dugu.

28. EAEko hezkuntza administrazioak irakastorduak igotzeko ahalegina egin arren, buruturiko mobilizazio indartsuek eta greba deialdiak murrizketa berri hau egitea ekidin zuen.

29. Erregistro Zibilak pribatizatzeko ahaleginaren aurrean ere, aurre egin izana eta buruturiko mobilizazioek, momentuz bederen, geldi arazi dute saiakera.

30. Europar auzitegietan behin-behinekotasunaren inguruan ELAk irabazitako epai batek prekariedadearen aurkako gure kanpaina indartu du. Behin-behinekotasunaren salaketa eta sozializazioan orain urte gutxi pentsa ezin genezakeen puntuan gaude. Eztabaida sozial eta mediatikoa irabazi dugu, agerikoa da administrazioak egiten duen behin-behineko kontratazioaren gehiegizko erabilera, baita iruzurra ere. Testuinguru honetan kokatu behar ditugu, kasu gehienetan oraindik ere nahikoak ez diren arren, administrazioa egiten ari den azken urte luzeetako EPE proposamenik handienak.

31. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Gizarte Esku-Hartzeko hitzarmen onak lortu ditugu. Lan-erreformatik babestuak eta aplikazio bermeekin. Azpimarratzekoa da negoziazio eta akordio hauetan ez dutela parte hartu Confebasken kideburiko patronalek.



ANTOLAKUNTZA

32. Ditugun erronkei hobe heltzeko antolakuntza aldaketa garrantzitsuak egin genituen 2013 eta jarraian zenbait egokitzapen 2015ean. Idazkaritza sektoreka espezializatu nahi izan genuen eta Federazioaren zuzendaritza sektore eta eskualdeetara gerturatu.
33. Aldaketa hauen ondorioz zuzendaritza lana eta lanaren planifikazio eta jarraipena hobe egiteko gaitasuna lortu dugu. Sektore, enpresa edota lan zentro bakoitzeko errealtatea eta erronkak hobe identifikatzen ditugu eta lantzeko gaitasuna ere hobetu dugu.
34. Lan-planak diseinatu, zuzendu eta gauzatzeko orduan, oraindik ere egiteko asko dugun arren, aurrerapausoak eman ditugu. Lan planak ditugun diagnostiko ezberdinekin lotuak doaz, helburuak hobe definitzen ditugu eta jarraipena egiteko balio digute.
35. Militanteekin egin beharreko lanean, laguntza, jarraipen eta zuzenketa gaitasunean hobetu dugu. Gertuagotik ezagutzen dugu sektore, enpresa edota lan-zentro ezberdinetako errealtatea. Eta honen baitan errazagoa eta eraginkorragoa da laguntza eta zuzenketa.
36. Aurrea pauso hauek guztiak azpimarratu ondoren, ordea, onartu beharrean gaude zailtasunak ditugula lanaren planifikazioan antolakuntza lehentasunak txertatzeko.
37. Zailtasunak ditugu sektore, enpresa edo lan-zentro ezberdinetan erreferentziazko pertsonak aurkitzeko, militantzia sustatzeko eta militantzian edo arduraren ezberdinak hartzerako orduan aurrerapausoak emateko.
38. Sektore handienetan lan-zentroak sindikalizatzeko behar adinako pausoak ez ditugu eman oraindik. Lan-zentro bakoitzeko egoera eta arazo espezifikoak heltzeko premia dugu. Oraindik ere egoera edo arazo horiei irtenbide partikularrak edota konponbide juridiko soilak emateko tentazioa eta inertzia dugu, ekintza sindikala eta militantzia sortu eta indartzeko tresna moduan ikustea baino. Federazioaren zuzendaritzatik ez ditugu egoera hauek antolakuntza lanerako aukera moduan behar bezala ikusi arazi, landu eta bideratu. Ez diogu merezi duen lehentasuna eman.
39. Oraindik ere ordukako liberatuekin diagnostikoak elkarbanatu eta lan-planak zehaztu eta gauzatzeko zailtasunak ditugu. Hobekuntza nabariak izan ditugun arren, oraindik ere kudeaketa lanak eta eguneroko zurrunbiloak gure lehentasun eta planifikazioari aurre hartzen dio.
40. Zenbait sektore edo lan-zentrotan lan-sindikalerako baliabide gutxi ditugu sindikalizazioan aurrera pausoak emateko, ordezkari nahikorik ez, ordu sindikal gutxi edo lan-sindikalerako pertsonak liberatzeko aukerarik ez dugulako.
41. Oinarriko militanteentzat, ordezkari nahiz afiliatuentzat, parte-hartze espazioak eta moduak ahalbidetzea eta gauzatzeko asko kostatzen zaigu.
42. Irakurketa honen baitan, hurrengo lau urteetarako oinarriko hainbat erronka jarri nahi dizkiogu geure buruari:

IV. KONGRESUA

2017-12-14

GASTEIZ

43. Batzorde Iraunkorrek sektore eta eskualde ezberdinetan gertuko ezagutza, jarraipen eta zuzendaritza lanean sakondu behar du. Horretarako ezinbestekoa izango da elkarbanaturiko diagnostiko zehatzak izatea eta adosturiko helburuen baitako epe luze, ertain eta motzeko planifikazioa garatzea.
44. Lan hau ezinezkoa izango da idazkaritzako kideek bere ardurapeko sektore, eskualde eta lan-zentroetan ordukako liberatu, ordezkari eta militanteekin lan planifikatua garatu ezean.
45. Lan-zentroen sindikalizazioan aurrera pausoak ematen jarraitzea ezinbestekoa dugu. Afiliazioa zabaltzea, ordezkaritza handitzea, militanteak gehitu eta haztea, lan-talde dinamikoak izatea... elkar elikatzen den katea da.
46. Lan zentroetan sindikatuaren eta langileen erreferenteak izango diren militante gero eta gehiago lortzeko planifikazioa garatu behar dugu.
47. Ordukako liberatu berriekin prestakuntza plan berezia abian jarri dugun arren, harrera eta bide-laguntza prozesua hobetu behar dugu. Harrera protokolo bat abian jarri behar dugu sektore eta eskualde ezberdinetan, militante bat orduka liberatzen denean Konfederazioaren, Federazioaren, sektorearen, eskualdearen eta egin beharreko lanaren oinarriko ezagutza lehenbailehen bereganatu dezan.
48. Ordezkari formalak ditugun tokietan sekzio sindikalak sortu eta indartu behar ditugu. Ordezkaritza formalik ez dugun tokietan aldiz erreferenteak, ekipo edo lan-taldeak sustatu behar ditugu.
49. Federazioko baliabideak modu egokian antolatu eta kudeatu behar ditugu sektore edota lan-zentro ezberdinetako erronka eta aukerei ahalik eta egokien erantzun ahal izateko. Sektore ezberdinetako arduradun eta liberatuek elkarri lagundu behar diogu lan-sindikalerako baliabide gutxien dituzten sektore edota lan zentroetan sindikalizazioan aurre-pausoak eman ahal izan ditzagun.
50. Oinarriko militantziaren parte-hartze eta ahalduntzea bermatu eta sustatuko dituzten espazioak sortu behar ditugu, beti ere genero berdintasun irizpideetan oinarrituta. Honetarako sektore, lan zentro eta eskualde bakoitzean militantziaren parte-hartze eta ahalduntze hau ahalbidetuko duten helburu, estrategia, espazio eta ekimen zehatzak zehaztu behar ditugu.
51. Arlo sozioekonomikoa, politikoa eta sindikalean gertatzen ari denaren inguruan, baita Konfederazioaren eta Federazioaren ildo nagusiak ere, hausnartu eta eztabaidatzeko espazioak jorratu behar ditugu. Bide honetan, eskualde bakoitzeko Federazioaren hileroko lan-taldeen bilerak bereziki landu behar ditugu.
52. Lan honetarako guztirako, ezinbestekoa da sektoreetako arduradunen, idazkaritzako kideen eta sektoreetako ordukako liberatuen eta lan-zentroetako ordezkarien edo erreferenteen arteko elkarlana eta lanaren planifikazioa egokia.
53. Azpikontraturiko eremu eta langileen errealitateari erantzun eta gure lanaren planifikazioan, aldarrikapenetan eta ekintza sindikalean txertatzeko gure federazio barruko sektore ezberdinen artean eta gainerako federazioekin, modu berezian Zerbitzuak Federazioarekin, elkarlana eta koordinazioa sistematizatu behar dugu.
54. Federazio osoko, nahiz sektoreetako egoerak aztertu eta lanketarako tresna egokiak sortze aldera oso garrantzitsua deritzogu Azterketa Bulego konfederalarekin eta Manu Robles-Arangiz Fundazioarekin elkarlana. Sektore Publikoaren inguruko ikerketek, estatis-

tikek, zerga bilketak eta aurrekontuei loturiko txostenek gure federazioan eta sektore ezberdinetan garrantzia berezia dute eta lan-sindikaleran oso tresna indartsuak suertatzen dira. Modu berean, Federazioaren ezagutzak eta ikuspuntuek Azterketa Bulegoaren eta Fundazioaren ikerketa lana lagundu eta orienta dezake eta ondorioak aberastu.

55. Gure lana planifikatzerako orduan eta ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa antolatzerakoan genero, lan-osasun edota euskara arlo konfederalekin elkarlana sendotu behar dugu gure ekintzak zehar lerro hauek guztiak barneratuak izan ditzaten.



HURBILEKO EKINTZA SINDIKALA HURBILEKO ANTOLAKUNTZA SORTZEKO

56. Aurrez esan dugunari jarraituz, ziurtasun nahikoarekin eta oro har esan dezakegu, epe motz eta ertainean bederen, administrazio publikoetan ez dela urte batzuk arte eza-gutu dugun moduko negoziazio kolektiborik izango. Hau da, orain arte funtsezkotzat jo ditugun eduki guztiak (enplegua sortzea, jardunaldi murrizketak, soldata igoerak...) bilduko dituen negoziazio eta akordio orokorrik.
57. Eta hau honela izanik, oinarriko militantzia behar bezala sustatzen eta indartzen ez dugun bitartean ez dugu indar-harreman nahikorik izango gure egungo antolakuntza eta ekintza sindikal hutsarekin oinarritzeko gaien inguruko negoziazioa eta akordioak behartzeko. Indar-harreman hau lortzea da gure erabateko lehentasuna negoziazio kolektibo eta antolakuntza ikuspegitik.
58. Hau esanda ere, negoziazio kolektiboko funtsezko gaiak etengabe landu behar ditugu. Izan ere, momentuan mobilizazio eta negoziatorako elementu erreal ez direla pentsa arren, testuinguru edo gertakari ezberdinen baitan mobilizazio eta negoziatorako elementu bihur daitezke, behin-behinekotasun tasa handiak eta egonkortasun aukerak kasu. Baina horretarako, militanteak, afiliatuak eta langileak oro har pedagogikoki landuak izan behar ditugu, momentua iristen denean probestu ahal izateko.
59. Aipaturiko indar-harremana lortu eta borrokarako antolakuntza nahikoa eraikitze aldera, lan-zentro bakoitzean edota langile-kolektibo bakoitzaren arazo kolektibo zehatzak antzeman behar ditugu eta konponbidea aurkitzeko bidean militantzia sustatu eta mobilizazio gaitasuna hobetu.
60. Prekarietatearen forma eta adierazpen ezberdinak ondo identifikatu behar ditugu eta aurre egiteko baliabideak sortu.
61. Zuzenean pribatizatuz edo azpikontratazioaren bidez pribatizatze arriskuan dauden sektore edo lan-zentroak ongi identifikatu behar ditugu. Sektore edo lan-zentro horietako langileekin lanketa berezia egin behar dugu, pribatizazioak zerbitzu publikoan duen eragin kaltegarria eta langileentzat dakartzan arrisku eta prekarizazioaz jabetzeko, eta, aldi berean, pribatizazioari aurre egiteko baldintza hobek sortzeko.
62. Lan-zentro edota langile-kolektibo jakin baten arazo eta kezka zehatzek langileetako lotura sortzen lagundu behar digute. Arazo edo kezka zehatz horiek aldarrikapen, mobilizazio eta negoziatorako tresna bihurtu behar ditugu. Eta era berean, militante berriak sortu, parte-hartze esparruak ahalbidetu eta antolakuntza sendotzeko balio behar digute.
63. Lan berezia egin behar dugu arazo edo kezka zehatz horiek bilatzen. Batzuetan ordezkapen ezak izango dira, besteetan egutegi edo ordutegia, agian lan-osasunarekin loturiko arazoak, kasuan-kasu lan-zamak edo beste. Federazioaren zuzendaritzatik hasi eta militantziak osoak lan-baldintzen hobekuntzara garamatzaten arazo edo egoerak antzematea lehenetsi behar dugu. Arazo guztiei ikuspegi sindikala eman behar diegu, alda-

rrikapen eta alternatiba erreal bihurtu eta negoziazorik ez dagoen heinean mobilizaziora bideratu.

64. Arazo eta kezka hauek lantzen ari garenean oso garrantzitsua dugu langileen partaidetza sustatzea eta militantzian urratsak emateko aukeran ikusten ditugunekin lanketa berezia egitea, lehentasunezko arreta eskainiz.

65. Ekintza sindikala indartzeko bidean militanteen parte-hartze esparruak egituratu behar ditugu, militantziaren ahalbideak prozesua ahalbidetzeko eta aurkitzen ditugun militante berriei garatzeko espazio bat eskaintzeko. Aurrez esan moduan, parte-hartze esparru hauek genero berdintasunerako irizpideak kontuak izan behar dituzte eta genero ikuspegitik duten eragina neurtu eta egokitu.

66. Tokian-tokiko arazoen inguruko borrokak emandako lorpenak edota negoziazio kolektiboan eskuratzen ditugun lorpen partzialei balioa eman behar diegu. Sindikatuaren eta borrokaren baliagarritasuna azaleratzen dutelako, antolakuntza eta militantzian pausok ematea ahalbidetzen digutelako eta helburu zabalagoak lortzeko bidea indartu egiten dutelako.

67. Arazo edo gatazka zehatzetatik ere irakaspen orokorrak, beste gatazketarako ere baliagarri diren ondorioak ateratzen ikasi behar dugu. Modu berean, gure militantziarekin borroka hauen eta gure estrategiaren inguruko pedagogia egin behar dugu ikuspegi ideologikoa landuz.

68. Jakitun gara Negoziazio Kolektiboa zatikatze honek dituen arriskuez. Gai garrantzitsuak ahaztu edota bigarren maila batean geratzeko arriskua dugu edota administrazioekin bigarren mailako eztabaida edo negoziazioetan sartzekoa. Arrisku hauek zaindu, gure militantzia beraiei jakitun egin eta funtsezko aldarrikapenak etengabe landu eta jomugan izan behar ditugu.

69. Ekintza eta borroka hauetan guztietan sektore eta eskualde ezberdinen artean koordinazio eta elkarlana oso garrantzitsuak dira estrategiak bateratu, esperientziak elkarbanatu eta gatazkei zabalkundea eman ahal izateko.

70. Pribatizaturiko eremuetan sindikatuaren apustu argia zerbitzuak berme guztiekin leheneratu edo publiko egitea da. Horretarako subrogazioa, lanpostuak mantentzea, eta lan-baldintzen berdintzea ezinbestekoak izango dira. Hori posible ez den heinean, gure tresna nagusia azpikontratatu edo privatizaturiko sektore edo enpresetan lan-baldintzak hobetzera eramango gaituen negoziazio kolektiboa izango da. Horretarako, sindikatuaren gainerako esparruetan egiten dugun moduan, hitzarmenak eraginkor eta aplikagarri izango diren negoziazio-eremuak bilatuko ditugu (batzuetan sektoreetan, besteetan enpresetan edota erakunde publikoetan). Edozein kasutan erreformen aurkako neurriak, prekarie-tateari aurre egitekoak, eros-ahalmenaren ginetiko soldata igoerak, jardunaldi murrizketak, genero berdintasunerako neurriak, euskararen indartzea, lan-osasuna zaintzeko neurriak... gure negoziazio eta hitzarmenetan sartu beharreko puntuak izan behar dira.

71. Hala ere, lan-erreformek patronalei eman dizkien abantailak eta hauen jarrera ikusirik eta administrazio publikoek beraiek esleituriko azpikontrataturiko eremuetan hartzen ari diren jarrera ikusita, gatazka gogor eta luzeak ezinbestekoa izango dira lan-baldintza onak lortu ahal izateko. Honek sektore edo enpresa hauetan prestaketa lana egitera behartzen gaitu gatazketara gure helburuak lortzeko berme nahikorekin iritsi ahal izateko.

72. Testuinguru honetan lortzen ditugun akordioei balio berezia eman behar diegu eta gure eguneroko lanean aldarrikatu, baita beste sektoreetako borroketan ere.

IV. KONGRESUA

2017-12-14

GASTEIZ

73. Azpikontraturiko eremu eta langileak gure lanaren planifikazioan, aldarrikapenetan eta ekintza sindikalean txertatu behar ditugu. Horretarako, gure federazio barruko sektore ezberdinen artean eta gainerako federazioekin, modu berezian Zerbitzuak Federazioarekin, elkarlana eta koordinazioa sistematizatzea beharrezkoa da.

74. Gure ekintza sindikalak ondorengo elementuak barnebildu behar ditu:

- Egonkortasuna: Administrazio publikoetan enplegu eredu berri baten defentsa. Egungo egoera larriari irtenbidea emango dion enplegu egonkortasun neurriak bermatu eta aurrerantzean horrelako egoerarik ez errepikatzeko neurriak ezarri, lan duintasunean eta egonkortasunean oinarrituriko kontratazio politika berri baten bidez.
- Enplegua: Murrizturiko lanpostuak berreskuratu eta enplegua sortu.
- Jardunaldia: 35 orduak defendatu, helburu moduan 32 orduko asteko jarduna landuz.
- Azpikontraturiko langileen lanpostu eta lan-baldintzak gure aldarrikapen bihurtu (subrogazioa, ekiparazioa, bermedun errebertsioa).
- Eros-ahalmena berreskuratu eta soldata igoerak lortu.
- Genero ekitatea. Berdintasun plan errealak, diagnostikoetatik harago doazenak.
- Euskara. Epe jakin batean eremu bakoitzean euskaraz lan egin eta bizitzeko eskubidea bermatua izateko plangintza zehatzak landu.
- Lan-osasuna. Lan-istripu, jazarpen eta gaixotasuna profesionalen prebentziarako neurri eta plangintza zehatzak egin.
- Etorkinen berdintasuna. Administrazioaren esparru batzuetan erabiliak dira egonkortzeko aukerarik gabe, EPEetan ezin baitute parte hartu (Osakidetzan). Beste esparru batzuetan oraindik ere egoera zapalduagoan daude.
- Aniztasun funtzionala. Legeak ezartzen dituen kuotak bete arazi. Lanpostuak aniztasun funtzionalaren beharretara egokitu. Insertzio enpresa askok sortzen dituzten guettoak gainditu eta ohiko enpresetara sarbidea ematen duela zaindu.
- Publikotasunaren aldeko apustua. Pribatizaturiko zerbitzu guztien leheneratzea eta besterik ez pribatizatzeko konpromisoa.

75. Genero eta euskarari buruz esandakoan, sindikatu barruan modu berezian landu behar ditugu, genero nahiz hizkuntza ikuspegitik gertatzen diren diskriminazioei aurre egin eta berdintasunean pausoak emateko.

76. Ekintza sindikalean, nahiz Federazioan oro har, egiten duguna gure afiliazio eta militantziari hobe hel arazten asmatu behar dugu. Barne komunikaziorako tresna eta baliabideak hobetu eta birpentsatu behar ditugu. Modu berean, botere ekonomiko eta politikoen menpeko diren komunikabideak isil arazten gaituzten heinean, komunikazio sailarekin elkarlanean, teknologia berriak probestuz eta sare sozialak hobe erabiliz, gure lan eta ekintzari oihartzun zabalagoa ematen jakin behar dugu.



SEKTORE EZBERDINETAKO EGOERA ETA ERRONKA NAGUSIENAK

A) HEZKUNTZA

Egoera

77. Azken urte luzetan gobernu ezberdinek garatu dituzten hezkuntza politiken eta ezarritako murrizketen ondorioz hezkuntzaren egoera Hego Euskal Herrian, bai hezkuntza publikoan, baita itunpeko hezkuntzan ere, larria da.

78. Hezkuntza inbertsio publikoan Europaren azken muturrean gaude. Eusko Jaurlaritzak Europar Batasunaren batz-besteak baina 1,2 puntu gutxiago, 968 milioi euro gutxiago, inbertitzen du hezkuntzan eta Nafarroako Gobernuak 1,7 puntu gutxiago, 329 milioi euro. UNESCO gomendaturiko gutxienekoarekiko 2,3 eta 2,9 puntu gutxiago, hurrenez hurren (2.416 milioi gutxiago).

79. 2011az gerostik hezkuntza inbertsio publikoa 0,4 puntu (297 milioi euro) murriztu da EAEn eta 0,2 puntu (39 milioi euro) Nafarroan. Aurrekontuetan, zenbaki absolutuetan ere, 2011an baina 53 milioi gutxiago inbertitu ditu Eusko Jaurlaritzak eta apenas milioi bat gehiago Nafarroako Gobernuak.

80. Epe berean matrikulazioa 26.889 ikasletan hazi da EAEn, 15.807tan hezkuntza publikoan eta 11.082tan itunpeko hezkuntzan, eta 6.249 ikasletan Nafarroan, 3.472tan hezkuntza publikoan eta 2.777tan itunpeko hezkuntzan. Baina murrizketa politiken ondorioz, langile kopurua ez da proportzio berean hazi edo murriztu ere egin da, Nafarroaren kasuan. Ondorioz, gelako ikasle kopurua nabarmen hazi da, %6,3 hezkuntza publikoan eta %5,4 itunpeko hezkuntzan EAEn; eta %6,9 hezkuntza publikoan eta %2,2 itunpeko hezkuntzan Nafarroan. Honek EAEn 2.000 langile inguru "aurreztea" ekarri du hezkuntza publikoan eta 1.400 inguru itunpeko hezkuntzan. Nafarroan aldiz, egoera honi irakastorduak 2 ordutan zabaltzearen eragina gehituz, behar baina 800 langile gutxiago daude hezkuntza publikoan eta 300 gutxiago itunpeko hezkuntzan.

81. Honi gehitzen zaizkio ponentzia honetan azaldu ditugun behin-behinekotasun tasa izugarri handiak, ordezkapenik ez egitea edo astebetera egitea eta gainerako sektoreetan ere ezarritako murrizketak eta lan-kargen handitze nabarmena.

82. Prekarietatearen inguruko lanketari loturik, lan berezia egin dugu eta egiten ari gara egoerarik okerrean dauden sektoreak ikus arazi eta beraien egoerari buelta emateko, hala nola, administrazio eta zerbitzuetako langileak, sukalde eta garbiketa, heziketa bereziko langileak edota haurreskoletako langileak. Buruturiko aldarrikapen eta mobilizazioe-

IV. KONGRESUA

2017·12·14

GASTEIZ

tan egoerarik prekarioena jasaten duten emakumez osaturiko sektore hauek lehen planoan ezartzen saiatu gara eta beraien borroka indartzen.

83. Egoera bereziki kezkarria da hezkuntza publikoan, alde batetik murrizketa gogorragoak jasan dituelako eta bestetik, berau delako berdintasuna, justizia sozial, inklusioa eta gizarte kohesioa ezinbestean bermatu behar duena.

84. Bai Nafarroako Gobernuak baita Eusko Jaurlaritzak ere itunpeko sarea hezkuntza-ko azpikontrata merke moduan erabiltzen dute. %5 eta %15 bitartean soldata txikiagoak ordaintzen dituzte, irakastordu edo lan-ordu gehiago betetzen dituzte eta %5 eta %25 arteko ratio handiagoak dituzte. Langileek lan gehiago prezio baxuagoan egiten dute patronalen mesedetan. Gainera, diru publikoz finantzatzen diren arren kudeaketa irizpide pribatuak dituzte, bai matrikulaziorako, kontrataziorako, ordezkapen edo kaleratzeetarako (beti ere langileen kaltetan) eta beraien proiektu eta interes ideologiko-korporatiboak garatzeko.

85. LOMCE lehenik eta Heziberri ondoren, inoiz ezagutu gabeko erasoak izan dira gure hezkuntza sistema txikitu, espainiar estaturen eskuetan jarri, ideologia eta pedagogia guztiz atzerakoia ezarri eta hezkuntzaren merkantilizatze bidean. Hasieratik gogor erantzun diogu eta gure borrokaren ezinbesteko dimentsioa da. Hurrengo urteetan ere gogor landu beharko dugu hezkuntza ziklo guztietan.

86. Euskalduntzean ere aurrerapausoak eman beharrean atzera egin dugu. Nafarroan PAIren zabalkundeak hauspotuta eta EAEn PSE-EE eta PPren gobernuak abian jarritako hirueleko markoari indar berria eman diolako PNV eta PSE-Eeren gobernuak euskara hutszeko erduei euskarazko orduak kenduz ingelesaren mesedetan.

87. Honen ondorio zuzena da hezkuntza berdintasun, justizia sozial, inklusio eta gizarte kohesioa bermatzeko tresna moduan arriskuan jarri dela.

88. Egoera honen aurrean mobilizazio ugari burutu ditugu kongresu arteko epe honetan. Berriena EAEko unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan buruturikoa. Gai izan gara azken urte luzeetako murrizketak eta hauen ondorioak hezkuntza komunitatearen eta jendartearen eztabaidaren lehen mailan jartzeko, LOMCE, Heziberri eta hezkuntzaren merkantilizazioak berekin dakarrena azaltzeko, gure aldarrikapenak modu argian plazaratzeko eta Eusko Jaurlaritza sektore ezberdinetan negoziazio mahaiak irekitzera behartzeko. Jada buruturiko 3 greba egun eta mobilizazio ugariei ikasturte honetako mobilizazio eta greba egunak gehitu behar dizkiogu. Nafarroan ere, bereziki 2011 eta 2014 bitartean mobilizazio garrantzitsuak burutu ditugu.

89. Epe honetan ere azpimarragarria da itunpeko hezkuntzan buruturiko greba eta mobilizazioak. EAEko patronalek (Kristau Eskola, AICE eta Ikastolen Elkarteak) Zapatero eta Patxi Lopezek eginiko murrizketen pisua langileen bizar ezartzeko ahalegina egin zutenean gogor erantzun genien milatik gora helegite sartuz eta epaitegietan irabaziz. Murrizketak mantendu ahal izateko Kristau Eskolak eta AICEk Estatuko Hitzarmenera jartzeko ahaleginari erabateko erantzuna eman genion, beste ehunka gatazka kolektibo sartuz eta 5 greba egunekin. Borroka gogor honen fruitu da egun Estatu osoan EAEko itunpeko hezkuntza dela, bai Gizarte Ekimeneko ikastetxeak baita Ikastolak ere, %5eko murrizketarik gabeko irakaskuntzako eremu bakarra.

90. Modu berean, oso azpimarragarria da itunpeko hezkuntzan Nafarroan egiten ari garen bidea. Hauteskundeetan nabarmen hazi gara eta FSIE-SEPNAren erabateko gehiengoa haustea lortu dugu. Honi loturik mobilizazio esanguratsuak burutu ditugu

Nafarroako Gobernuak eta patronalek langileei ezarritako %9ko soldata murrizketen aurka eta Nafarroako itunpeko ikastetxeen hitzarmen propioaren eztabaida lehen planoan jartzea lortzen ari gara.

91. Unibertsitatean enpleguaren egoera kezkarria da. Bi langiletatik bat behin behineko egoeran dago Unibertsitatean. Gainera, behin behineko egoera sortu eta bultzatzeaz gain, enplegu horren baldintzak oso prekarioak dira. Hainbat kolektibotan (ikertzaileak, pre-doktoralak, post-doktoralak, LIUak...) unibertsitateko hitzarmen kolektiboek ezartzen dituzten lan baldintzak ere ez dizkiete aplikatzen, unibertsitate eta zientzia legeetan babes-tuz. Ildo horretan, egiten ari garen aldarrikapen eta mobilizazioei esker, talde batzuen (pre-doktoralak eta postdoktoralak) lan baldintzak nabarmen hobetzea lortu dugu.

92. Datozen urteetarako eginiko bideari eutsi eta jarraipena eman behar diogu. Jakitun gara bai administrazio publikoa baita patronal pribatuak ere, oso zail jarriko digutela egoera hau irauli eta lan-baldintzetan nahiz hezkuntza politika eta baliabideetan aurrerapausoak ematea. Hala ere, orain arte eginiko bideak, azken urteetan indarturiko mobilizazioek eta antolakuntzan ematen ari garen pauso eta lan modu berriek aukera emango digute bide honetan sakontzeko.

Erronka nagusienak

93. Irakaskuntzan ere, federazioan ezarritako antolakuntza eta ekintza sindikaletako erronka berak ditugu. Eta bide horretan ezinbestekoa dugu ikastetxe bakoitzean eta kolektibo ezberdinetan pairatzen ditugun arazo zehatzak antzeman eta horien inguruan erreferenteak sortu, militantzia indartu eta mobilizazioa aktibatzea. Azken batean, ikastetxeak sindikalizatzea.

94. Lan-zentro, sektore eta eskualde bakoitzeko diagnostikoen baitako helburuak eta ekintzak jasoko dituen lan planifikatua ezinbestekoa dugu antolakuntza eta ekintza sindikalean aurrera egiteko.

95. Horretarako, eskualde bakoitzean idazkaritzako arduradun eta ordukako liberatuen lana ezinbestekoa gertatuko da. Bide horretan aurrera pauso nabariak eman ahal izateko oso garrantzitsua da ikastetxe, sektore eta eskualde bakoitzean antzematen ditugun arazo, behar edota aukerak elkarbanatzea eta lan-zentroak sindikalizatzeko baliatzea. Modu berean, prozesu administratibo ezberdinetan jarraitu beharreko irizpideak edo antolakuntza ikuspegitik garatu beharreko estrategiak elkarbanatzea. Sektore bakoitzeko bilerak honetan sakontzen lagundu behar digute.

96. Ondorengoak dira nagusik landu behar ditugun erronkak:

- Hezkuntza gobernuen lehentasun bihurtu eta inbertsioa handitzera behartu, Europar Batasuneko batz-bestekoa oinarri BPGren %6 helburu.
- Nafarroan 2 irakastordu gutxiago lortzea.
- Plantillak handitzea kolektibo ezberdinetan.
- Behin-behinekotasuna %6ra murriztea.
- Gelako ikasle kopurua %10 murriztea.
- Hezkuntza behar berezietarako lanpostuak eta baliabideak handitzea.
- Itunpeko hezkuntzan lan-baldintzen homologazioa eta kontrol publiko gardena bermatzea.

IV. KONGRESUA

2017-12-14

GASTEIZ

- Nafarroan itunpeko irakaskuntza hitzarmen propioa negoziatzea.
- EAE nahiz Nafarroan, balizko Hezkuntza Lege baten aurrean sindikatuon eta hezkuntza eragile guztien parte hartzea bermatzea, hezkuntza publikoa ardatz izango duen hezkuntza sistema defendatuz.
- Hezkuntza ikuspegi merkantilistatik urundu eta euskal curriculuma ardatz izanik justizia soziala, berdintasuna, aniztasuna, inklusioa eta gizarte-kohesioa bermatuko duen hezkuntza sistemaren lanketa.
- Unibertsitateko prekarietate eta diskriminazio bereziko egoerak antzeman kolektibo ezberdinetan eta antolakuntza eta ekintza sindikalerako tresna bihurtu.
- Hezkuntza berdintasun, justizia sozial, inklusio, eta gizarte-kohesioa bermatzeko tresna izateko bidean pauso nabariak ematea.
- Derrigorrezko Hezkuntza ibilbidea amaitzean ikasleak euskaraz edozein gairen inguruan hitz egin eta idazteko trebetasuna izatea lortu behar dugu, horretarako euskarazko murgiltze ereduak bultzatuz. Bide horretan ibilbide ezberdinak egin behar ditugu EAE eta Nafarroan. Nafarroa osoan euskaraz ikasteko eskubidea bermatu behar dugu eta eremu misto edo ez euskalduna deiturikoetan A ereduak G edo PAI ereduak irabaz diezaie lan egin behar dugu. Lanbide Heziketan eta unibertsitatean egungo euskarazko eskaintza eskasa gainditu eta administrazioak euskarazko eskaintza indar dezan lan egin behar dugu.

B) OSASUNA

Egoera

97. Hiru mila lanpostu baino gehiago suntsitu dira Osakidetzan eta Osasunbidean azken biltzarren arteko tartean. Horietatik, 1.500 baino gehiago berreskuratzea lortu dugu, lanaldia luzatzeko erabakia bertan behera utzi eta asteko 35 orduko lanaldira itzuli eta norberaren aukerako egunak, "moskosoak eta "kanosoak" berreskuratu ondoren.
98. Nabarmen hazi dira lan-kargak, ez baitago behar adina jende lanerako. Are larriagoa bilakatzen dute egoera ordezkapenik ezak eta langileen adinak, urtetan aurrera baitoaz gehienak.
99. Eusko Jaurlaritzak erabaki du ez betetzea pribatizazio berriak galarazten dituen Mahai Orokorraren Erabakia. Horren adibide dira Urduliz Ospitalearen, Arabako ikuztegiaren eta Basurtuko Ospitaleko autoasegurua kasuak.
100. Nafarroako Gobernuak, berriz, pribatizatu egin zuen, 2012an, ospitale publikoetako sukalde-zerbitzua. Nabarmen egin zuten okerrera zerbitzuaren kalitateak eta langileen lan baldintzek erabaki hori zela eta.
101. Bestalde, ELA indarrean den garapen profesional ereduaren aurkakoa den arren, Osakidetza bertan behera utzi zuen horren baitako soldata hazkundera eta soldata-igoerarik gabe utzi zituen 5.000 langile. Langileek igoera kobra zezaten eta eredu berrikosten zuten hitzarmen bat negoziatzea proposatu zion gure sindikatuak Osakidetzari.

102. Bestalde, apenas egon den EPERik epe horretan, eta egon diren apurrek oso lanpostu gutxi eskaini dituzte. Hori dela eta, %43tik gorakoa da behin-behinekotasuna EAEn, eta % 39koa Nafarroan.

103. Bien bitartean, administrazioaren zenbait erabakik eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiek zalantzan jarri dute kontratazio-eredua, eta horri buruzko eztabaida sakona abiarazi. Zalaparta handia sortu zuen, bestalde, oposizioko azterketa egin ondoren kontratazio-irizpideak aldatzeko Osakidetzaren erabakiak. Beste behin ere, gure sektorearen benetako arazoa uzten du agerian eztabaida horrek: lanpostu-kopuruaren murrizketa eta behar hainbat lanposturik eza.

104. Bai Osakidetzak, bai Osasunbideak etengabe baliatzen dituzte behin-behineko kontratuak, oso prekarioak, eta ia esklabo bihurtzen milaka langile. Beldurra hedatzen du langileen artean prekariedade eta behin-behinekotasun egoera horrek, eta ahuldu egiten du borrokarako ahalmena. Izan ere, beldur da jendea eskaintzen dizkioten apurrak ere ezote dituen galduko. Emakumeak dira egoera horretan dauden langile gehien-gehienak.

105. Kudeaketa Klinikoko Unitateak ari da irekitzen Osakidetza, eta, horien bidez, osasun-zerbitzua pribatizatzeke edo merkantilizatzeke ateak zabalik uzten. ESI (Erakunde Sanitario Integratu) egitura dela medio, ospitaleetara ari da bideratzen lehen mailako arreta; hori dela eta, eredu "ospitalezentrikoa" ari da nagusitzen, non garrantzi handiagoa ematen zaion teknologiari langileei baino.

106. Euskalduntze-prozesuari dagokionez, berriz, arazo larria du Osakidetzak. II. Euskara Plana ezarri du zuzendaritzak, bere kabuz ezarri ere. Plan horrek ez du eperik jartzten herritarren nahiz langileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko, ez eta baliabiderik esleitzen ere euskalduntze-prozesua bultzatzeko. Langileen borondatearen eta ahaleginaren bizkar uzten da, beraz, euskalduntze-prozesua.

107. Egoera honi guztiari erantzutearren, hainbat greba egun eta mobilizazio garrantzitsuak burutu ditugu bai EAEn baita Nafarroan ere. Mobilizazioak egiten jarraitu beharko dugu, edo areagotzen, egoera aldatu nahi baldin badugu.

Erronka nagusienak

108. Txosten federal honetan diogunari jarraituz, partaidetza-eremu gehiago eta hobeak eskaini behar dizkiogu afiliazio aktiboari. Horretarako, zabaldu egin behar ditugu atal sindikalaz dugun ikuspegia eta haren funtzionamendua, afiliazio eta militantzia aktiboa barneratuz, nahiz eta ordu sindikalik ez eduki.

109. Ondo antolatu eta jakintza zein tresna egokiak behar ditugu kudeaketa-lana menderatzeko. Honek antolakuntza-lanari eta ekintza sindikalari behar bezalako garrantzia eta denbora eskaintzeko aukera zabal diezaguke, batez ere militanteak bilatzeari eta antolatzeari. Ospitale handietan batzuk kudeaketa-lanean espezializatzeko aukera eman diezaguke beste batzuk antolakuntza-lanerako eta ekintza sindikalerako liberatzeko.

110. Hobetu beharra dago liberatuen harrera, trebakuntza eta birziklatzea. Izan ere, oso garrantzitsua da prestakuntzan denbora inbertitzea lanari ekin aurretik.

111. Taldeko lana sustatu eta hobetu egin behar da ESI bakoitzean. Ardura ezberdinak dituen jende-multzoko bat izatetik harago jo behar dugu: taldea osatu behar dugu.

112. Jarduera sindikalari dagokionez, berriz, hauek ditugu lehentasunak:

IV. KONGRESUA

2017-12-14

GASTEIZ

- a) Osasun-alarreko murrizketen ondorioak aztertu behar ditugu, eta osasun-sistema publiko, euskaldun, bidezko eta kalitateko baten alde klase-konpromisoa garatu.
- b) Plantilla egonkortzea. Kontratazio- eta enplegu-eredu berri bat bultzatu behar dugu, kontratazio gardena eta lan-baldintza duinak bermatzen dituen eredu bat alegia.
- c) Pribatizazioei aurre egitea. Eta horrekin batera, Kudeaketa Klinikoko Unitateen ezarpenari aurre egitea.
- d) Pribatiza daitezkeen sailtako lanpostuei eustea: beharginak, administrazioko langileak, zeladoreak, informatikariak, mantentze-lanetakoak...
- e) Belaunaldi batetik hurrengorako jauzia bermatzea, pribatizazioak saihesteko. Erretiroak sustatzea, irteerak mailakatzeko.
- f) Genero-diskriminazioari aurre egiteko, berdintasun-plan bat ezartzea. Horretarako, kontziliazio-neurriak ziurtatu behar ditugu, baina ez nahitaez soldata murriztea dakarren kontziliazioa; eta benetako berdintasuna behar dugu osasungintza publikoko lanpostuetara iristeko prozesuan eta maila profesionalez igotzekoan.
- g) Garapen profesionaleko beste eredu bat behar dugu.
- h) Euskalduntze-plataforma zaindu eta garatu egin behar dugu. Bermatu egin behar dugu, arrazoizko epe batean, norberak hautatzen duen hizkuntzan lan egiteko eta bizitzeko eskubidea, eta zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan eskaintzeko gai izan behar dugu. Bide horretan, partekatu egin behar dira esfortzuak, eta ez langileen bizkar utzi ahalegin guztia. Izan ere, hori egin da orain arte.
- i) Langileen funtzioak argitu eta zehaztu egin behar dira, anbiguotasunak saihestu eta zuzendaritzekin eztabaida antzurik ez izateko. Postu Funtzionalei buruzko dekretu berri bat behar dugu, eta lanpostuen balorazioa, ardura, lan eta funtzio errealetara egokitzeko ordainsari-sistema.
- j) Lan-osasuna:
 - Berriazko arreta jarri behar zaie arrisku psikosozialei, psikologiako espezialisten kontrol eta ikuskaritzaren pean betiere.
 - Segurtasuna bermatzea lanpostu guztietan. Langileek, oro har, eta bereziki etxez etxeko arretakoek jasaten dituzten erasoak prebenitzea eta haietatik babestea (banakako arreta, EAG edo Etengabeko Atentzio Guneak edota kontsultategiak).
 - Neurriak hartzea langileen lan-baldintzak hobetzeko, kontuan izanik geroz eta zaharragoa dela plantilla, eta txandaka, gauez edo 12 edo 14 orduko lanaldietan jarduten dela.
- k) Espezialitateak ezartzea erizaintzan, eta konpontzea erizainen errezeten arazoa, pertsonal medikoaren eta erizainen funtzioak argitu, segurtasun juridikoa eman eta bi talde horien arteko tentsioak eta enfrentamenduak saihesteko.

C) UDAL- ETA FORU-ADMINISTRAZIOA

Egoera

113. Joera defentsiboa izan da nagusi azken sei urteotan foru- eta udal-administrazioan. Udalek eta diputazioei, Madrilek ezarritako murrizketak betearaztearren indarrean diren hitzarmen kolektiboak ez aplikatzeko erabakiaren aurrean, zuzenean exijitu diegu bestelako politika batzuk aplikatzeko Hego Euskal Herrian.

114. Sektore bakoitzeko antolakuntzari eta zuzeneko interpelazioari esker, lortu dugu murrizketak eragoztea edo bertan behera uztea udal- eta foru-erakunde askotan edo gehienetan.

115. Dena dela, murrizketen aplikazioa galaraztetik landa, oso udal eta diputazio gutxitan lortu dugu negozio kolektibo aldarrikatzailerik bultzatzea.

116. Biltzarren arteko epean, areagotu egin dira enplegu-suntsiketa eta prekarizazioa foru- eta udal-administrazioan.

- a) 3.400 enplegu suntsitu dira.
- b) Behin-behineko kontratua dute langileen % 36k baino gehiagok.
- c) Zerbitzuen etengabeko pribatizazioa dela medio, azpikontratutako administrazio paralelo bat eratu da. Egonkortasun-bermerik ez du administrazio paralelo horrek, eta azpikontratutako enpresen eta botere politikoaren mendeko da; langileek, berriz, lan-baldintza okerragoak dituzte.

Erronka nagusienak

117. Gaztetu egin behar dugu gure militantzia. Afiliatu edo langilerik aktiboenak atzeman eta erakarri, eta harremanetarako edo partaidetzarako eremuak sortu behar ditugu udal edo diputazioetako atal sindikaletan, edo sindikatuko bilera eta jardueretan.

118. Lan egiteko modu berriak sustatu behar ditugu, idazkaritzatik, eskualde guztietan, gure antolakuntzaren ardatzak sendotzeko. Lan planifikatua egin behar dugu lantokien sindikalizazioan aurrera egiteko (afiliazioa, militantzia eta ekintza sindikala) eta jarduera sindikala hobetzeko.

119. Behar-beharrezkoa da ELAko federazio guztien arteko lankidetza eta koordinazioa, batez ere Zerbitzuak federazioarekikoa, azpikontratazioari eta prekarietateari aurre egiteko, bai eta udal- zein foru-administrazioko eta azpikontratutako enpresetako langileen lan-baldintzak hobetzeko bidean elkarrekin aurrera egiteko ere.

120. Hobetu eta sakondu egin behar dugu udal- eta foru-administrazioko ordezkarien arteko koordinazioa eta harremana, eskualde bakoitzeko ordezkarien sektorekako bilerak antolatuz.

121. Areagotu egin behar dugu, Lan-Taldeetan edo antolatzen ditugun bilera organikoetan, ordukako liberatuen eta ordezkarien partaidetza.

122. Lehenetsunen artean egon behar du gure militanteen trebakuntzak (ordukako liberatuena, ordezkariena eta afiliatuena), bai teknikoak, bai ideologikoak, eta gure lan-planifikazioaren lehen postuetan jarri behar dugu.

IV. KONGRESUA

2017-12-14

GASTEIZ

123. Ordukako liberatuen, atal sindikalen eta ordezkarien lana zuzentzeko behar den ezagutza izan behar dute idazkaritzako arduradunek. Horretarako, ezinbestekoa da zenbait gairi buruzko etengabeko trebakuntza.

124. Sektore horretako negozio kolektiboari buruzko azken erabakiak erakundeek hartzen dituztenez, areagotu egin behar ditugu alkatetza eta ahaldun nagusienganako interpelazioak.

125. Azken urteotan garbi ikusten ari garenez, gaur egun ez dago erakunde bakoitzean sektorekako negoziazio kolektiboa aplikatzeko bermerik. Horregatik, duela urte batzuk hasitako bideari jarraikiz, eremu berriak zabaldu, eta udal zein diputazio bakoitzean sakondu behar dugu negoziazio-ahalegina.

126. Azken urteotako jarduera sindikalak nabarmendu du, baldin eta zerbitzu publikoak eta lan-baldintzak hobetzeko benetako borondaterik badago, gainditu daitezkeela administrazio publikoen lege-eragozpenak edo derrigorrez aplikatu beharreko legeriaren aitzakiak. Administrazioaren aitzakia edo borondaterik eza denon begien aurrean jartzen dituzten txosten juridiko, politiko eta sozialak prestatu behar ditugu, hobekuntza sozialak lortzeko.

127. Aurre egin behar diegu zerbitzu publikoak kaltetzen eta lan-baldintzak okertzen dituzten lege guztiei (Enplegu Publikoaren Legea, Larrialdien legea, Suhiltzaileen Legea, Polizia Legea, Gizarte Zerbitzuen Legea...).

128. Oro har, ez dira betetzen ari sinatu diren azken hitzarmen kolektiboak; beraz, badugu zer eginga hitzarmenak betearazteko. Horretarako, ezinbestekoak ditugu antolakuntza eta, erakunde bakoitzean, indar-korrelazio egokia.

129. Sektoreko behin-behinekotasun izugarria ikusirik, aldi baterako enplegua egonkortzeko neurri eraginkorrak sustatu behar ditugu.

130. Zerbitzu publiko guztiak babestea lehentasunen zerrendan jarri behar dugu. Izan ere, geroz eta zerbitzu gehiago ari dira pribatizatzen gure sektorean (hirugarren adineko-entzako egoitzak, garbitasun-zerbitzuak, mantentze-lanak...). Pribatizazio gehiago izan ez dadin egin behar dugu lan, bai eta pribatizatutako zerbitzuak berme guztiekin berriro publiko bihurtzeko ere.

131. ELAren beste bi federazioekin elkarlanean, gure aldarrikapenetan sartu behar ditugu azpikontrataturako langileen eskakizunak. Lehentasun bilakatu behar ditugu.

132. Bestalde, enplegu-sorrera ere sartu behar dugu gure aldarrikapen-plataformetan, bai eta plantillen gaztetzea ere, horretarako erretiroak sustatuz eta lanpostu berriak sortuz.

133. Genero-berdintasunak ere lehentasuna du. Gizonezko baino emakumezko gehiago ari da sektore honetan, baina ardura gutxieneko lanpostuetan eta soldata txikienekoetan. Diskriminazio hori hautsi eta berdintasunaren bidean aurrera egiteko beharrezko neurriak bultzatu behar ditugu.

134. Laneko arriskuen prebentzioari eta laneko osasuna bermatzeko neurriei ere egin behar diegu lekurik gure aldarrikapenetan, eta bereziki sustatu behar ditugu arrisku psikosozialen azterketak eta prebentzio-neurriak.

135. Hurbileko udaltzaingo-eredua aldarrikatu behar dugu, prebentzio-lana egiten duena, eskubide guztiak bermatzen dituena.

136. Eta langileen euskalduntzea bultzatu behar dugu: bermatu egin behar da zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidea, euskalduntze-plan errealistak eta eraginkorrak garatuz.

D) PRIVATIZATUTAKO EREMUAK: SEKTORE SOZIOSANITARIOA ETA BIDAIARIEN GARRAIOA

Egoera

137. Bereziki pairatzen dute sektore horiek administrazio publikoen privatizaziorako makurtasuna, zeinak ondorio larriak eragiten baititu bai zerbitzuan, bai lan-baldintzetan ere:

- a) Lan-baldintza okerragoak
- b) Langile-kopuruak, behera
- c) Lan-kargak, gora (ratio zaharkituak)
- d) Geroz eta gehiago, aldi baterako kontratazioak.
- e) Behin-behinekotasun handiagoa.
- f) Zerbitzu-zorroaren dekretua: privatizazioaren eta sektoreko enpresa handien negozioaren alde egiten du; hori dela eta, nabarmen egiten du okerrera zerbitzuaren kalitateak.

138. Gure erakundeen jarrera hori ikusirik, ekintza sindikala, mobilizazioak eta grebak bultzatu ditugu sektore soziosanitarioan eta bidarien garraiokoan. Erreferentzia izan dira - eta dira- mobilizazio horiek borroka sindikalerako.

139. Hirugarren adinekoen egoitzetan:

- a) Gipuzkoan, 2013 eta 2015eko borroka gogorren ondorioz, sektorea eta bertan lan egiten duten emakumeen lan-baldintzak duin bihurtzeko pausu garrantzitsuak eman ditugu. Enpresako edo lantokiko hitzarmenak dituzte sektoreko langileen % 90ek. Hori dela eta, lantokietatik kanpo geratzen dira lan-erreformak.
- b) Bizkaian, sektoreko hitzarmen bat sinatu genuen 2014an, beste borroka gogor baten ostean. Hitzarmen haren arabera, lantokietatik kanpo geratzen ziren lan-erreformak. Gaur egun, berriz, greba ari gara egiten sektore horretan. Badira dagoeneko 17 hilabete (220 egun) grebari ekin geniola. Borroka sindikalaren erreferentzia izaten ari den mobilizazio honek sektorearen etorkizuna ere bideratuko du.
- c) Araban, berriz, berritu egin ditugu enpresa-hitzarmenak, eta negoziazio-eremu berriak zabaldu.
- d) Nafarroan ere berritu ditugu zenbait enpresa-hitzarmen.

140. Esku-hartze sozialean, lehen sindikatua izan gara, EAeko hiru herrialdeetan, biltzar arteko epean. Araban, lan-erreformak galarazten dituen klausuladun sektoreko lehen hitzarmena sinatu dugu. Gipuzkoan, sektoreko bigarren hitzarmena sinatu dugu. Lorpenak: 35 ordu astean, eta soldata- eta gizarte-hobekuntza nabarmenak. Bizkaian, azkenik, lortu egin dugu sektoreko IV. Hitzarmenean erreformaren aurkako klausulak txertatzea. Nafarroa, azkenik, esku-hartze sozialeko sektore-hitzarmen berri bat eratzeke lanean ari gara.

141. Etxez etxeko arreta:

- a) Aldarrikapenak zuzenean udaletan aurkeztuz, lan-baldintzek okerrera egitea galarazi dugu, batetik; bestetik, hobekuntza nabarmenak lortu ditugu Oñatin,

IV. KONGRESUA

2017-12-14

GASTEIZ

Errenterian, Bergaran, Zumaian, Barakaldon, Ortuellan, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, bestea beste, sinatu ditugun hitzarmenen bidez.

- b) Bereziki salatu dugu mendekotasuna pairatzen dutenentzako laguntzen sustapena. Izan ere, udal-zerbitzuak ez kontratatzeke aitzakia ederra dira laguntza horiek, eta lan-baldintzen prekarizazioa eragiten dute.

142. Osasun pribatua, zenbait enpresa-hitzarmen sinatu ditugu; horiei esker, lan-baldintza duinagoak ditu sektoreak.

143. Aniztasun funtzionalaren sektorean: gai izan gara mobilizazioa eta negoziazio kolektiboa sustatzeko.

144. Bidaiarien garraio-sektorean, Bizkaibussen lanposturik ez galtzea lortu dugu, mobilizazio eta greba gogorak egin ondoren.

145. Azpimarratzekoak dira sektore soziosanitarioko afiliazio- eta ordezkari-tasak. Izan ere, % 20 egin du gora gure afiliazio-tasak biltzarren arteko epean (1.015 afiliatu gehiago). Eta 97 ordezkari gehiago ditugu.

Erronka nagusienak

146. Sakon jorratu behar ditugu gure ardatz estrategikoak diren afiliazioa, militantzia, ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa.

147. Sektoreko militanteen trebakuntza hobetzeak, berriz, lagundu egiten die garapen pertsonalari zein kolektiboari. Ahalegin handiagoa egin behar dugu trebakuntza ideologikoari, teknikoari, komunikazio-alorrekoari, taldeak kudeatzekoari... dagokienez.

148. Hobeto zehaztu behar ditugu sektoreko ordukako liberatuen eginkizunak eta betebeharrak eta hobeto erabili eta aprobetxatu behar ditugu ordu-kredituak.

149. Sustatu egin behar dugu militanteen partaidetza federazio, sektore edo azpisektoreko bilera organikoetan.

150. Sektore eta azpisektore guztietako militanteen artean informazioa partekatzeke sistemak antolatu behar dira.

151. Zerbitzu publikoa aldarrikatu behar dugu, eta pribatizatu den kasuetan guk eskatzen ditugun berme guztiekin berriro publikoa izan dadin borrokatu. Sindikatuok adostu behar dira, beti, prozesu horiek; bermatu egin behar dira pribatizazioa pairatu duten langileen interesak, zilegiak baitira, bai eta administrazioan lan egiten duten bitarteko, behin-behineko eta lan-poltsetako langileenak ere.

152. Ekintza sindikalean eta lan-baldintzak hobetzeko borrokan gabiltzala, zerbitzuaren arduradun nagusiari aurkeztu behar dizkiogu gure aldarrikapenak, hots, administrazio publikoari (udala, diputazioa edo gobernu autonomikoa). Izan ere, administrazio publikoa baita zerbitzuaren azken arduraduna, pribatizazioaren arduraduna, zerbitzuaren lizitatzailerak eta ordaintzailea.

153. Pribatizatutako zerbitzuak berme guztiekin publiko bihurtzeko prozesuak bultzatzeko gai ez garen arte, soldadak eta lan-baldintzak parekatzeke egin behar dugu borroka.

154. Zerbitzuak esleitzeko orriak ekintza sindikalerako tresna oso garrantzitsua dira. Informazio zehatza eduki behar dugu esleipen-orriez, eta gogor saiatu azpikontratutako langileek nahikoa berme eta lan-baldintza duinak izan ditzaten.

155. Txosten juridikoak, sozialak eta politikoak landu behar ditugu, argi erakusteko aise gainditu daitezkeela administrazio publikoek aipatzen dituzten aitzakiak (lege-eragozpenak, nahitaez aplikatu beharreko legedia), baldin eta zerbitzu publikoak eta lan-baldintzak hobetzeko benetako borondaterik badago.
156. Gure aldarrikapenak ahalik eta zorrotzen zehazteko, lagungarri zaigu zerbitzuen eta lan-baldintzen diagnostiko egokiak egitea eta partekatzea.
157. Erakundeek gutxieneko zerbitzu gehiegizkoak ezartzen dituztenez eta greben eraginak moteltzen saiatzen direnez, gizarteari lan-gatazken berri emateko beste modu batzuk bilatu behar ditugu. Edozein kasutan ezin dugu begi bistaz galdu, greba dela gure borroka- eta aldarrikapen-tresna nagusia.
158. Arreta handia ipini behar dugu enplegu-zentro berezietan: sailkatu egin behar ditugu, eta berariazko estrategia eta lan-plana prestatu.
159. Komeni da, bestalde, berariazko lana egitea akreditazioen gaiarekin.
160. Ordu sindikal gehiago eskatu behar ditugu gure plataformetan, eta ordu horiek lan-tokika metatzeko aukera.
161. Sektore osorako kanpaina bat ipini behar dugu martxan, udal- zein foru-erakunde- ei eta EAeko zein Nafarroako legebiltzarrei zuzendua, Hiru ardatz hauen inguruan:
- Lan-kargak eta koefiziente murriztaileak jaitea, lan-orduak eta ratioak gutxitzea.
 - Gutxieneko lanaldi duinak, prekarietateari aurre egiteko.
 - Erabiltzaileei ematen zaien arretaren kalitatea bermatzea.

E) EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIO AUTONOMOA ETA JUSTIZIA SAILA, NAFARROAKO GOBERNUKO ADMINISTRAZIO NUKLEOA ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK

Egoera

162. 2010ean sinatu ziren sektore horietako azken hitzarmenak. Sistematikoki geratu dira bete gabe hitzarmenak eta, seguru aski, ez gara gai izango horiek bere osotasunean berritzeko eta eduki guztiak hitzarmen integral batzuetan biltzeko. Federazioko gainerako sektoreetan bezala, alor horietan ere ez dago negoziazio kolektiborik.
163. EAeko Justizia Administrazioan, 2010eko hitzarmena osorik betetzeari uko egiten jarraitzen du Eusko Jaurlaritzak, eta oso urruti daude sail horretako langileak hitzartutako soldata-parekatzea lortzetik.
164. Sektore hauetako ezaugarri dira lan-eskubideen galera, murrizketen aplikazio sistematikoa dela medio, eta enpleguaren prekarietate-maila handia.
165. Bi aldetatik datoz murrizketak: Estatutik (murrizketak gaixotasun-bajen osagarrietan, 2012ko abenduko aparteko soldata ez ordaintzea, soldata-murrizketak...), betiere Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, inongo eragozpenik gabe aplikatzen baitituzte, eta gobernu autonomikoek beraiek bultzaturikoak (Erretiro Primak kentzea, edo Itzarrirako ekarpenak etetea).

IV. KONGRESUA

2017-12-14

GASTEIZ

166. Enpleguari dagokionez, berriz, oso larria da egoera. azken urteotan EPERik ez egiteko eta sistematikoki zerbitzuak azpikontratatzeko gobernuen erabakia dela eta. Sail batzuetan 27 urte daramatzate EPERik gabe; beste batzuetan, 17; gutxiena daramatenek, 7 urte).

167. Gogora dezagun EITBren administrazio kontseiluak onartu zuela euskal administrazio publikoko lehen EEEda (enplegu-erregulazioko espedientea), zeinak 30 lanpostu suntsitzea ekarri baitzuen.

168. Alor ia guztietan, % 30etik gorakoa da lanpostuen behin-behinekotasun tasa. Iraupen luzeko behin-behinekotasunaz ari gara, non zenbait langilek 25 urte daramatzaten bitarteko kontratuak sinatzen, langile finkoa izateko batere aukerarik gabe. Batez ere emakumei eragiten die egoera horrek.

169. Zerbitzu-Eginkizunak bultzatu ditu Eusko Jaurlaritzak barneko maila-igoera benetakorik eza mozorrotzeko; hori dela eta, karrerako funtzionarioen erdiek, gutxi asko, titular ez diren postuetan daude urte luzez, eta ez daukate inongo aukerarik beren postua finkatzeko.

170. Aldebakarreko erabakia hartu, eta lekualdatze-lehiaketa orokorra jarri du martxan Lakuako gobernuak. Langile askoren kaleratzea ekar dezake erabaki horrek, eta karrerako funtzionario ugari beren jatorrizko postuetara itzultzea.

171. Nafarroako Gobernuari dagokionez, sailetako buruak izendatzeko dekretuaren aurka azaldu da ELA. Izan ere, ezinbestekoa deritzo gure sindikatuak burutza-mapa eratzeari. Ez du zentzurik burutzak izendatzeak aldeztu aurretik azterketarik egin gabe, inongo planifikaziorik gabe, edo sailen zuzendaritza egokiarekin loturarik ez duten interesen araberako erabakia ere izan daiteke.

172. Bien bitartean, geroz eta zerbitzu gehiago azpikontratatu jarraitzen dute gobernuak: eragiketa estatistikoak, segurtasuna, garbitasuna, informatika, lan-orientabidea...

173. Justizia Administrazioan, oso postu gutxiak izan dira orain arteko EPEak. Hori dela eta, % 30etik gorakoa da behin-behinekotasuna EAEn eta % 42koa Nafarroan; herrialderen batean, % 65etik gorakoa da. "Errefortzuko" bitarteko langileak izendatzen dituzte, unean uneko premietarako, ustez; baina iruzurrezko erabilera eginez, egiturazko premietarako baliatzen dituzte.

174. Bestalde, turismo-zerbitzua pribatizatze asmoa du Nafarroako Gobernuak, txostenean aurrez aipatu dugunez.

175. Eta Justizia Administrazioa ere ez da pribatizatze grina horretatik kanpora gertzen. Langileen mobilizazioari esker, atzeratu egin da Erregistro Zibila pribatizatze proiektua, baina orain arte erregistroei bakarrik zegozkien zenbait funtzio hasiak dira azpikontratatu.

176. Lanbide, berriz, desastre hutsa izan da sortu zen egunetik bertatik, inongo aurreikuspen eta planifikaziorik gabe egin baitzen haren transferentzia.

177. Lanbide sortu eta handik bost urtera, mobilizazio ugariren ondoren (tartean, bederatzigarren greba-egun), Lanpostuen Zerrenda bat ezarri zuen, azkenik, Eusko Jaurlaritzak. Desegokia zen Lanpostuen Zerrenda, eta inondik ere ez nahikoa. Ondoren, urte bereko urrian, "Lanbideren hitzarmena" deritzona sinatu zuten LABek, CCOOek eta UGTk Eusko Jaurlaritzarekin. Langileen mobilizazioak behartuta, aldatu egin zuen Jaurlaritzak bere hasierako jarrera zenbait gai garrantzizkori zegokienez (DBE -Dirusarrerak Bermatzeko

Errenta- programarako kontratatutako bitarteko langileen kaleratzea, adibidez), baina, hala eta guztiz ere, ELAk ez zuen sinatu hitzarmen hura, eskasa eta zehaztasun gutxikoa baitzen.

178. Erabaki zuzena izan zela berretsi digute gerora izandako gertakariak. Konpondu gabe jarraitzen du Lanbideko egoerak, eta hitzarmen haren zehaztasunik ezaren ondorio da orientatzaileen egungo gatazka. Eman behar omen lituzkeen zerbitzu guztietarako behar adinako hornidurarik ez du jasotzen Lanbidek, ez dago antolakuntza-irizpide garbirik, eta langile-eskasia eta lanpostuen ezegonkortasuna dela eta, are zailagoa da behar bezalako zerbitzua ematea erabiltzaileei.

179. Eusko Jaurlaritzaren mendeko enpresa publikoetan, ondo baliatu dugu soldata-murrizketaren % 5a erreklamatzeko aukera juridikoa. Egokiro uztartu ditugu ekintza juridikoa eta ekintza sindikala eta, horri esker, berreskuratu egin dugu murriztu ziguten soldatapuska, eta gora egin du gure afiliatu- eta ordezkari-kopuruak.

180. Bestalde, biltzar arteko epe honetan onartu du Eusko Jaurlaritzak Administrazio Orokorrerako eta haren Organismo Autonomoetarako I. Berdintasun Plana. ELA izan da Plana sinatu ez duen sindikatu bakarra. Jasotzen ditu txostenak, diagnostiko-fasean, administrazio horretako genero-desberdintasunak, baina proposatzen dituen neurrietan ez da zehazten haiek martxan jartzeko arduradunik, eta ez da esleitzen horretarako baliabiderik. Beraz, beste behin ere, propaganda hutsean geratu da Eusko Jaurlaritza.

181. Bestetik, 2017aren amaieran du epemuga Euskara Normalizatzeko Planak (2014-2017). Urte hauetan, hizkuntza-profilak eta derrigortasun-datak jartzea izan da Eusko Jaurlaritzaren euskara normalizatzeko politika guztia. Zenbait sailek hartzen dituzten erabakiak, ordea, Administrazioa euskalduntzeko helburuaren kontrako noranzkoan doaz. Gogora dezagun sail bakoitzak bere irizpideen arabera garatzen duela Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana. Are gehiago: zenbait sailetan, sistematikoki ukatzen zaizkie langile gehienei euskara ikasteko baimenak.

182. Ez da hartzen, oro har, euskaraz lan egitea errazten duen neurririk eta, horrenbestez, alferrikakoak izaten dira bai langileen ikasteko ahalegina, bai inbertsioa. Hizkuntza-profilak eta derrigortasun-datak eskatzen dituen administrazio berberak profilik eskatu gabe egiten ditu lan-poltsen handitzeak. Zentzugabekeria galanta, inondik ere. Baina, batez ere, ez da ikusten benetako hizkuntza-normalizazioa bultzatzeko borondate politikorik, edo, sikiera, euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzekorik.

183. Eta Jaurlaritza honek ere, aurrekoek bezala, erabat ematen die bizkarra sindikatuei hizkuntza-politika diseinatzerakoan. Bistakoa da burugabekeria, langileok baikara normalizazio-planen aktore nagusiak.

184. Nafarroako Gobernuak, berriz, euskararen erabilera sustatzeko dekretu berri bat argitaratu du. Gure eskari guztiak ez ditu aintzat hartzen dekretuak, eta ez dela nahikoa deritzogu; hala eta guztiz ere, aurrerapausotzat jo du ELAk, gure azken helburuak lortzeko urrats positibotzat.

Erronka nagusienak

185. Azken urte hauetan ikusi dugunez, gobernuaren jarrera aldarazteko bide bakarrak bi dira: epaitegiak (% 5 enpresa publikoetan, iruzurra kontratazioan, Justiziako aparteko

IV. KONGRESUA

2017-12-14

GASTEIZ

soldata...) edo, bestela, mobilizazio sendoa (Lanbide, 2015eko lanaldien zirkularra administrazio autonomoan...).

186. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak honegatik aplikatzen dituzte doitzepolitikak, enpleguaren behin-behinekotasuna eta abar: bat datozelako politika horrekin. Eta aplikatzen jarraituko dute, epai batek galarazten ez badie behintzat, edo mobilizazioak bidea oztopatzen.

187. Dena dela, geroz eta nabarmenagoa izan arren gobernuen jokabide hori, ez gara gai izaten ari alor horietako langileak behar adina antolatu eta mobilizatzeko.

188. Baina militante gogotsuak eta arduratsuak baldin baditugu, mobilizazio hori sustatzeko gai izango garelaokoa gaude. Zenbat eta militante gehiago, zenbat eta militante hobeak, orduan eta aukera gehiago mobilizazioa bultzatzeko.

189. Gure helburu nagusia, beraz, antolakuntza-alorrekoa da: militanteak gureganatzea eta trebatzea, langileak antolatu eta mobilizatzeko.

190. Funtsezkoak izango dira datozen urteak, batez ere arlo horietako enpleguaren egoerari dagokionez. Desafio gogorra dugu, eta langile guztien interesen alde jarduteko gai izan behar dugu.

191. Garrantzi eta zeharkakotasun handiagoa eman behar diogu generoaren gaiari; diskurtso propioa sortu behar dugu, geure jarrera garatu, eta genero-ikuspegia txertatu gure jarduera-eremu guztietan.

192. Administrazioan euskara normalizatzeko prozesuaz ere diskurtso propioa sortu behar dugu, eta, bide batez, euskararen erabilera normalizatu gure barne-egituretan.

193. Laneko Segurtasuna eta Osasuna ere sakonago jorratu beharreko alorra dugu; garrantzi handiagoa eman behar zaio, eta hobeto landu.

F) ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

Egoera

194. Hego Euskal Herriko sektore publikoan, Estatuko Administrazio Orokorraren mendeko langileek dituzte lan-baldintzarik okerrenak, eta alde nabarmenak daude haien eta Administrazio Publikoko gainerako langileen soldaten eta eskubide sozialen artean.

195. Azken urteotan, talde horri eragin diote gehienbat krisiak eta doikuntza-politikek, eta soldaten zein eskubide sozialen murrizketarako "probalekutat" erabili dute. Zenbaitetan, gainera, pribilegiatutzat jo dituzte, enpresa pribatuetao langileekin alderatuta.

196. Bestalde, edukiz hutsik daude Madrileko "negoziatio-mahaiak", langile horien lan-baldintzak negoziatzeko eskumenak dituztenak, alegia. Agintean dagoen gobernuak mahaiian jartzen duena (deus ez, maiz) "antzezten" dute mahai horiek.

197. Baina benetako negoziatorik ezaren erantzukizun guztia ez da Madrileko gobernuarena bakarrik. Espainiar Estatuko CCOO, UGT eta CSIF sindikatuak, sarritan, administrazioarekin ados jartzen dira, eta haren jokabidea legitimatu egiten dute.

198. Zailtasun handia da benetako negoziatio kolektiborik eza eta pertsonal-politiken zentralizazioa sektore horretan lan sindikala egiteko eta, horrenbestez, hor diharduten lan-

gileen lan-kondizioak hobetzeko eta euskal administrazioetan lan egiten dutenen baldintzekiko homologatzeko.

199. 2012an, lehenbizi, eta, ondoren, 2017an, legeak jasotzen duen baino liberatu edo ordu sindikal gehiago izateko akordioak sinatu dituzte “elkarrizketa sozialeko” sindikatuek, baina krisiaren aitzakiapean martxan ipini ziren murrizketetako bat bera ere ez zen aldatu negoziazio edo hitzarmen horietan. Laburbilduz, bake soziala ordu sindikal eta liberatu gehiagoren truke.

200. Okerrera egin du, bai, soldaten eta eskubide sozialen egoerak administrazio horretan, baina are okerragora enpleguarenak: lanpostu-suntsiketa, behin-behinekotasuna, EPE deialdirik eza, langileen ordezkari eza, lan-kargen handitzea eta plantillaren zahartzea (langileen % 20 erretiratu egingo da hurrengo urteetan).

201. Correosen, berriz, aurrera jarraitzen du pribatizazio-prozesuak, eta ez dago erakunde horretarako bideragarritasun-planik epe ertain edo luzera. Ez du inongo finantziario publikorik jasotzen; zerbitzu publiko baten desegitearen adibide ezin garbiagoa da.

202. Azken urteotan, enplegua galdu da eta nabarmen egin dute okerrera lan-baldintzek Estatuko Administrazioan: izoztuta daude soldadak, eta bestelako murrizketa ugari ere ari dira pairatzen langileak.

Erronka nagusienak

203. Zenbait arlotan egin behar dugu lan Estatuko Administrazioan:

204. Antolatu egin behar ditugu langileak, haien lan-baldintzak defendatzeko eta hobetzeko; negoziazio kolektiboa deszentralizatzen saiatu behar dugu, bestela beti egongo baita halako “arraila” bat administrazio horren eta Hego Euskal Herriko gainerako administrazioen artean.

205. Egoera hori dela eta, “Madrileko mahaietan” gertatzen denaren jarraipena egin behar dugu aurrerantzean ere; murrizketak salatzen jarraitu behar dugu, eta euskal administrazioetako gainerako langileekiko homologazioa aldarrikatzen.

206. Zor diren transferentziak eskatzen jarraitu behar dugu, alor horietan lan egiten dutenekin elkarlanean; langileen lan-baldintzak parekatzeko exijitu behar dugu, pribatizazioen aurka borrokatu, eta Lanbideren egoera beste inon errepika ez dadin saiatu. Izan ere, sei urte igaro diren arren Lanbide sortu zela, arazoak sortzen jarraitzen du.

207. Lan-planak garatu behar ditugu, eta gure jarduera sindikalera erakarri erretiroek utziko dituzten hutsuneak betetzeko datozen urteotan sektore horretan hasiko diren langile berriak, zeinei hasieratik azaldu behar zaien ekintza sindikalaren beharra, baldin eta EAEko eta Nafarroako administrazioetako lan-baldintzen parekoak eduki nahi badituzte.

208. Hego Euskal Herriko administrazio publiko guztietako langileentzako lan-harremantarako esparru bateratu baterantz jo behar dugu. Ahalmen legegile eta betearazle erabatekoa izan behar du esparru horrek, non Madrilek ez duen eskurik sartu behar.

209. Correosen, lan-legepeko langileen baldintzak hobetzen saiatu behar dugu, eta euskal administrazioetako gainerako langileenekin parekatzen.

G) ERTZAINZA ETA FORU POLIZIA

Egoera

210. Ponentziaren sarreran esan moduan, langile-klasea oro har eta zerbitzu publikoak modu berezian, eraso egituratu baten biktima izaten ari gara. Kapitalaren eta interes pribatuen mesedetan burutzen ari den eraso da, baina botere politikoaren ezinbesteko laguntza duena. Testuinguru honetan, boterean daudenek polizia erabiltzen dute segurtasun indar edota demokraziaren eta herritar eta langileon funtsezko eskubideen babeserako tresna baino kontrol sozialerako tresna moduan. Hain zuzen ere, murrizketarik gogorrenen eta herritar xumeen aurkako erasorik gogorrenetarikoaren garaian kontrol sozialeko tresnak ugaltzen ari dira. Adibide garbia da 2015 geroztik ezarri eta gauzatu ari den Mozal Legea.

211. Ertzaintzaren 2016 plan estrategikoaren ezarpena, murrizketak eta Segurtasun Sailaren negoziatzeko borondaterik eza ditugu Ertzaintzan aplikatzen ari den doktrina neoliberalaren eta errezeta enpresarialaren adierazle. "Baliabideen arrazionalizazioa" aitzakia harturik, prekarizazioaren bidean jarri dira bai ertzainen lan-baldintzak, bai haiek gizarte-ari eman beharreko prebentzio-zerbitzuarenak. Gogoan izan dezagun, bestalde, Europa osoan bezala hemen ere segurtasun pribatua bultzatu nahi dela. Pribatizazioa, prekarietatea eta kontrol publikoaren galera dakartza berekin segurtasun-mota horrek.

212. Foruzaingoari dagokionez, berriz, positibotzat jo genuen 2015/15 Legea, soldatamasaaren banaketa bidezkoagoa zekarrelako eta urte luzez UPNk ezarritako polizia-eredua desmuntatzen zuelako; aldiz, Barkosen Gobernuak aurkeztu duen Polizia Lege Proiektuaren guztiz aurka gaude. Inongo negoziatorik gabe aurkeztu du gobernuak lege-proiektu hori; arbitrariotasun handiagoa dakar, eta lan-baldintza okerragoak (goi-agintarientzako izan ezik); areagotu egingo du malgutasuna; gogortu egingo du zigor-erregimena, eta are gehiago urrunduko du polizia Funtzio Publikoaren Estatututik.

213. Biltzar arteko epean, ez da egon negoziazio kolektiborako eskubiderik; hori dela eta, etengabe egin dute okerrera ertzainen eta foruzainen lan-baldintzek.

214. Egoera hori aldatzearen mobilizazio eta protesta ugari egin ditu gure sindikatuak azken urteotan, ondo dakigun arren greba-eskubiderik ez edukitzeak zenbat mugatzen dituen aldarrikapenak plazaratzeko eta borroka egiteko aukerak.

215. Antolakuntzari dagokionez, urrats garrantzitsuak egin ditugu: etengabe jardun gara lantokietan, eta afiliatuengandik gertu egon gara beti, informazioa ematen.

Erronka nagusienak

216. Zenbait arrazoi direla medio, oso erraz garatzen da korporatibismoa polizia-erakundeetan, eta nagusi da, gaur egun, sektore horretan. Nabarmen zailtzen ditu korporatibismoak ELAren sindikalismo-mota (borrokaren aldekoa), benetako negoziazio kolektiboa eta polizia-eredu sozial, prebentziozko eta gizartearen kontrolpeko baten aldarrikapena.

217. Administrazioak, jakina, sindikalismo korporatiboa sustatzen du, hala interesatzen zio eta. Bai Ertzaintzan, bai Foruzaingoan, apurra negoziatzen eta adosten ditu administrazioak sindikatu korporatiboekin, gure indarra ahultzearen betiere, kontraboterea aldarrikatzen duen klase-sindikatuak baikara.

218. Egoera hori ikusirik, funtsezkoa da militante-sare edo -talde bat eratzea, sektore osoan izan dezan gure sindikatuak etengabeko presentzia, bai eta militante eta afiliatuei gure jarrerak denbora errealean aurkezteko gaitasuna ere. Horretarako, eskura ditugun baliabide guztiak erabili behar ditugu: asteroko informazio-orria, telefono bidezko txat-taldeak, etengabe informazioa jartzea ohar-tauletan, eta abar. Gure militanteekin jarduteko, gure ekintza sindikala hobetzeko eta polizia sozialaren eredia aldarrikatzeko aukera ematen digute tresna horiek.

219. Negoziazio kolektiboari dagokionez, hauek dira ELAren aldarrikapen estrategikoak: negoziazio kolektiborako eskubidea berreskuratzea, lan-baldintzak hobetzea, eta, prebentziozko polizia-eredua garatzeko, plantilla handitzea.

220. Azken urteotan galdutako erosteko ahalmena eta eskubideak berreskuratzen saiatu behar dugu, eta mugikortasun geografikoa, malgutasuna eta lan-baldintzen prekarizazioa ahalik eta gehiena mugatzen ahalegindu.

221. Polizia-etxeen eta unitateen zentralizazioa geldiarazten saiatu behar dugu.

222. Indargabetu egin behar dugu Ertzaintzaren 2016 plan estrategikoa, lehenbailehen erretirarazi Polizia Legearen aurreproiektua, eta, 2015/15 Legea oinarri harturik, negoziazio-prozesu bati ekin.

223. Azkenik, sakondu, zehaztu eta gizarteratu egin behar dugu nahi dugun polizia-ereduari buruzko eztabaida eta aldarrikapena: polizia soziala, prebentiboa, hurbilekoa, behar adina baliabidez hornitua, ongi trebatua, manipulazio eta instrumentalizazio politikotik librea, herritarren eskubide kolektibo eta indibidualen bermatzailea, eta euskal gizar-tearen zerbitzura diharduena.



ALIANTZAK

224. Egun aliantza estrategikoak egiteko moduko sindikatu bakarra LAB da. Bat gatoz LABekin honetan: klase-sindikatu eta sindikatu abertzalea gara, eta politika neoliberalak ez babesteko erabaki estrategikoa hartua dugu. Oinarrizko bat etortze horrek, alabaina, ez du esan nahi zailtasun objektiborik ez dugunik eguneroko jardunean hainbat sektore eta herrialdetan. Elkarlana eta aliantzarako aukera praktikan elkarrekin topo egiten dugun heinean eta diagnostiko, aldarrikapen eta mobilizazio moldeetan bat egiten dugun neurrian garatuko dugu. Alabaina, aurkitzen ditugun zailtasunak elkarri adierazi eta gainditzen aha-legintzeko borondatea sendoa dugu. Hau guztia gure militantziarekin landu eta pedagogia egiten saiatu behar gara.

225. Ordezkaritza duen eremuetan eta diagnostiko, aldarrikapen eta mobilizazio moldeetan bat egiten dugun heinean ere ESKrekin elkarlana bilatzen ahaleginduko gara. Hezkuntzan, azken urteetan elkarlan emankorra izan dugu STEILASekin eta elkarrekin jarduteko aukera ikusten dugun esparruetan elkarlana indartzen saiatu behar gara.

226. Sektore, enpresa edo lan-zentro bakoitzean daukagun egoera edo errealtate propioen baitan modu taktikoan edo estrategikoan gure helburuak lortze bidean egoki ikusten ditugun elkarlan edo aliantzak landu behar ditugu.